BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1865

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 9koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, «Fundación Mundubat – Mundubat Fundazioa» elkarteak programetarako laguntzak jasotzeko beharrezko administrazio-baldintzak eta ahalmenak betetzen dituela egiaztatzeko dena. Adierazitako laguntzak apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuak arautzen ditu.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 10. artikuluan xedatzen denez, diru-laguntza jaso ahal izateko, dagokion programa-deialdia ixten den egunean erakunde eskatzaileak aldeko eta indarreko ebazpen bat eduki beharko du, eta ebazpen horretan egiaztatuko da dekretu horren I. kapituluaren 2. atalean ezarritako administrazio-baldintzak eta ahalmenak betetzen dituela.

Aipatutako dekretu horren 11. artikuluan xedatzen denez, Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzak ebatzi beharko du egiaztatze-eskaera hori, kontuan harturik eskaerak 36 hilabeteko indarraldia izango duela, argitaratzen den egunetik hasita.

«Fundación Mundubat – Mundubat Fundazioa», elkarteak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara bidalitako 2014ko apirilaren 1eko idazkiaren bidez, programetarako laguntzak jasotzeko egiaztatze-eskaera bat aurkeztu zuen.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa azterturik ikusi da «Fundación Mundubat – Mundubat Fundazioa», elkarteak bete egiten dituela I. kapituluaren 2. atalean ezarritako administrazio-baldintzak eta ahalmenak.

Adierazitakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egiaztatzea «Fundación Mundubat – Mundubat Fundazioa» elkarteak bete egiten dituela programetarako laguntzak jasotzeko bete beharreko administrazio-baldintzak eta ahalmenak; eta bete egiten ditu 36 hilabetez, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Denbora-tarte horretan, «Fundación Mundubat – Mundubat Fundazioa» elkarteak zuzenean parte hartu ahal izango du programetarako laguntzak jasotzeko deialdietan, deialdi bakoitzean egiaztatzeko premiarik izan gabe.

Bigarrena.– Egiaztatze-indarraldian zehar, Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzak aukera izango du egokitzat jotzen dituen eguneratzeak edo/eta argibideak eskatzeko «Fundación Mundubat – Mundubat Fundazioa» elkarteari, administrazio-baldintzak eta ahalmenak betetzeari dagokionez. Ikusten bada eskatutako baldintzaren bat edo ahalmenen bat ez duela gehiago betetzen, Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzak ofizioz ekin ahal izango dio egiaztapen hori indargabetzeko espediente bati.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 9a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.